


eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEKO IKERTALDEEI LAGUNTZAK
EMATEKO DEIALDIA
(2016)**

HITZAURREA

UPV/EHUn oinarriko funtzioa ikerkuntza da, jakintzaren sortzailea, irakaskuntzaren oinarria, komunitateak aurrera egiteko bitartekoa eta jakintzaren gizarte transferentziarako euskarria baita. Horregatik, unibertsitate honen lehentasunezko helburuetako bat ikerkuntza zientifikoa, teknikoa, humanistikoa eta artistikoa garatzea da, bai eta ikertzaileak prestatzea ere. Horrez gain, ikertaldeak osatzea eta garatzea sustatzen du, kalitatea, diziplinartekotasuna eta bikaintasun sareetako integrazioa bultzatuz, eta beste entitate eta enpresa batzuekin batera talde mistoak osatuz.

Deialdi honen bidez, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea osatzen duten gainerako eragileekiko lankidetzeta eta unibertsitateko ikertaldeek prestakuntza ere indartu nahi dira, deialdi lehiakoragoetan parte har dezaten; hala nola, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako planaren programa desberdinetan, estatu mailako deialdietan edo Europar Batasunaren nazioarteko deialdi desberdinetan.

Helburu horretarako 600.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu-programaren barruan "Ikerketa proiektuak, taldeak eta azpiegitura zientifikoa" ataleko B21 ekintzei egokitutako finantziak kontuan hartuta.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean, IGBB) bere oniritzia eman ondoren eta gobernu kontseiluak 2016ko apirilaren 21ean onartu ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordetzak UPV/EHUko ikertaldeetarako laguntzen deialdi hau argitaratzea erabaki du.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua ikerketa jarduerak erraztea eta bultzatzea da, bai eta UPV/EHUko ikertaldeek egindako ikerkuntzaren kalitate zientifikoa hobetzea ere, bost jakintza arloetan ikerketak egiteko laguntza finantzarioak emanez: zientzia, ingeniariaritzeta eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte zientziak eta zientzia juridikoak, eta artea eta giza zientziak.

Honako hauek dira ikerketako ekintzen bidez lortu nahi diren helburuak:

- a. Oinarriko ikerketan aritzea, ezagutza maila handitzeko, bere horretan ondasuna den aldetik.
- b. Ikerketa estrategikoaren aritzea, berrikuntza lehiakortasuna indartzeko eta gizarte ongizatea hobetzeko elementu gisa sustatzeko.
- c. Unibertsitateak enpresekin eta gainerako eragile sozialekin duen harremana sustatzea.

Goian adierazitako hitzaurrearen arabera, deialdi honen helburua bikaintasunezko ikerketa lanean arituko diren talde egonkorak sortzea da.

2. OINARRIA. HELBURUAK

Deialdi honen bidez, UPV/EHUn osatutako talde garrantzitsuak identifikatu eta horiei laguntza eman nahi zaie, horrela, beren kalitatea eta bikaintasun zientifikoa indartu eta bultzatu ditzaten.

Deialdi honi esker, beraz, talde bakoitzari hiru urterako proposatutako jarduketa programa betetzeko emango zaion diru-laguntza zehaztu eta adjudikatu nahi da. Programa ebaluatu ondoren, ebaluazioa aldekoa izanez gero, taldea UPV/EHUko ikertalde gisa aintzatetsiko da.

3. OINARRIA. IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

3.1. Laguntzak eskatzeko, ikertalde aintzatespena lortzeko eta deialdi honetan zehaztutako laguntza jasotzeko, ikertaldeek honela osatuta egon beharko dute:

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHUk kontratatutako Ramón y Cajal programako langileak, Ikerbasque programako langile atxikiak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoko doktore atxikiak eta irakasle atxikiak.
- b. Langile ez iraunkorrak (Ramón y Cajal Programako ikertzaileak eta irakasle atxikiak izan ezik); horien UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak gutxienez hurrengo urteko abenduaren 31ra arte aurreikusita egon beharko du.
- c. Horretarako, besteak beste, langile hauek hartuko dira kontuan ez iraunkor gisa:
- d. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan zehaztutako kontratu modalitate desberdinen bidez UPV/EHUri lotutako langileak.
 - i. Praktika kontratua duten eta prestatzen ari diren ikertzaileak.
 - ii. UPV/EHUREN deialdietako doktorego ondoko ikertzaileak.
 - iii. Prestatzen ari diren ikertzaileei dagokionez, beren doktorego tesiaren zuzendariak proiektuaren taldeko kide izan behar du eta bere kontratuak ezin du 2018ko ekainaren 30a baino lehen amaitu.
- e. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozedurei jarraituz ikerketarako laguntzaile gisa aintzatetsitako langileak.

3.2. Taldeak 3.1.a oinarrian adierazitako kolektiboetako hiru ikertzaile doktore izango ditu gutxienez.

3.3. Eskaera koordinatuko duen ikertzaileak Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalak (CNEAI) azken sei urteetan emandako ikerketa seiurteko bat edo pareko beste agentzia batek egindako ebaluazio positiboa (seiurteko aktibo baliokidea) izan beharko du.

Horrez gain, arduraldi osoan aritu beharko du eta 3.1.a. oinarrian adierazitako kolektiboren bateko kide izan beharko du. Ikerbasque programako ikertzaile atxikiak ezin izango dute ikertaldeetako ikertzaile nagusi izan.

Salbuespen gisa, ez da beharrezkoa izango arduraldi osoaren eskakizuna betetzea, IGBBK horren aldeko txosten arrazoitua egiten badu, ikertzailearen garrantzi zientifikoa kontuan hartuta.

3.4. Ikertaldeko kide gehien arteko harremana egonkorra dela egiaztatu beharko dute, nolabaiteko koherentzia erakutsiz, adibidez, azken bost urteetan proiektu eta argitalpen komunetan parte hartu dutela egiaztatuz. Ikertaldeak beste erakunderen bateko ikertzaileekin harremanak izan eta proiektu eta argitalpenak horiekin batera gauzatzen baditu, beste erakundeetako ikertzaileak ez dira ikertaldeko kide hartuko deialdi honetarako.

3.5. Inork ezin izango du:

- Aldi berean deialdi honetako ikertalde batean baino gehiagotan parte hartu.
- UPV/EHUren 2014ko eta 2015eko deialdietako "Taldeetarako diru-laguntza orokorrak" ataleko finantziatorik daukan talde batean parte hartu.
- 2016an jardunean dauden Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldeetan (finkatuetan) parte hartu.
- UPV/EHUren ikerketarako laguntzen deialdiko ikerketa proiektu aktiboren batean parte hartu, modalitatea edozein dela ere.
- Euskal gobernuaren Euskal Unibertsitate Sistemako ikertaldean jarduerak laguntzeko deialdietan eta UPV/EHUren ikertaldean laguntza deialdietan eskariak aurkezteko epean laguntza lortu duen ikertalderen batean baja eskatu, deialdi honetan parte hartzeko asmoz.
- Ikerketa proiektu aktibo batean baja eskatu, UPV/EHUren ikerkuntza laguntzeko deialdirako eskariak aurkezteko epean, deialdi honetan parte hartzeko asmoz.

3.6. Talde eskatzaileak azken bost urteotan jarraian finantziazioa jaso duela egiaztatu beharko du. Azken bost urteotan jasotako finantziazioaren %25ak gutxienez UPV/EHUtik kanpoko iturrietatik eskuratutakoa izan behar du. Talde eskatzailekoak ez diren beste ikertzaile batzuekin partekatutako proiektuen kasuan, horien ekarpena taldeko ikertzaile kopuruarekiko modu proportzionalan neurtuko da.

Beharrezkoa izanez gero, ikertzaile nagusiak baldintza hau betetzen dutela egiaztatzen duten argibideak edo informazio gehigarria eman beharko ditu.

3.7. Ezin izango dituzte laguntza hauek eskatu ondorengo egoeretako batean dauden pertsonak:

- a. Epai irmoz kondenatuta daudenek diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- b. Diru laguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenek.
- c. Ebazpen irmo bidez lege honen edo beste lege batzuen arabera diru laguntzak jasotzeko aukera galdu izatea.

4. OINARRIA. IKERKETARAKO HIRU URTEKO PLANA

4.1. Laguntza hauek ikertaldean oinarritzko funtzionamendu gastuak ordaintzeko erabiliko dira, ikerketa proiektuetarako UPV/EHUtik kanpoko erakundeen eskutik lortzen dituzten finantziazioak osatuz.

4.2. Laguntzak hiru urtetarako programaturiko eta Horizon 2020 programa europarrean zehaztutako erronkak betetzera bideratutako ikerketa lanerako izango dira. Programan garatu beharreko ikerketa ildoak eta sortzen diren premiak asebetetzeko diru-laguntzen plana zehaztuko dira. Laguntzen kopurua eta zenbatekoa IGBBren proposamenaren arabera zehaztuko da, laguntza eskaeren kopurua, aurrekontuen zenbatekoa eta ikertaldean balorazioa kontuan hartuta.

4.3. Ikertaldeak zehaztutako epean abian jarri nahi dituen helburu eta ekintzei

buruzko informazioa emango du xede horretarako emandako inprimakiei jarraituta, alderdi hauek zehaztuz:

- a. Taldearen antolaketa eta egitura, lehiakortasuna hobetze aldera.
- b. Prestatzen ari diren taldeko ikertzaileen prestakuntzaren eta jardueren aurreikuspena.
- c. Taldearen guztizko finantziazioa eta UPV/EHUri eskatutako finantziazioa.
- d. Taldearen plangintza estrategikoa, dela ikerketa ildoena, dela beste talde, sail edo ikastegi batzuekin egingo dituen aliantzena, horren bidez helburu zientifikoak hobeto lortu eta taldearen masa kritikoa handitzeko.
- e. Emaitzak ustiatzeko aurreikuspena: argitalpenak, patenteak, etab.
- f. Aurkezteko asmoa duten bestelako deialdi batzuen plangintza; gaia, bazkideak, aurrekontuak eta arrakasta lortzeko aukerak zehaztuta.
- g. Transferentzia ekintzen plangintza, enpresetako bazkideak, kontratu motak, laguntzak eta diru-laguntzak, etab.
- h. Harremanen plangintza eta autonomia erkidegoko, estatuko edo Europako sareetako partaidetza: bazkide mota, harreman mota, lankidetzaren gaia, etab.

5. OINARRIA. LAGUNTZEN IZAERA

5.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatzeko laguntzak. Kontratuak egiteko, irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko UPV/EHUK duen araubidea aplikatuko da.
- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUKo Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez bakarrik erosi ahal izango dira. Ildo horretatik, UPV/EHUKo prozedura zentralizatutik kanpo ekipamendua erosteak taldeari emandako diru-laguntza murriztea ekar dezake, egindako erosketaren zenbateko berean.
- c. Material suntsigarria.
- d. Bidaiak eta dietak, joan-etorrietan egindako edozelako gastuak barne, baita biltzarretakoak (izena ematekoak barne) eta beste zentro batzuetan egindako egonaldi laburretakoak ere. Nolanahi ere, aipatutako egonaldiak konputatuko dira baldin eta ikertzaileak mugikortasunerako deialdia espezifikoetan konkurrentzia lehiakortasunerako deialdia laguntzarik esplizituki ukatu zaiola ziurtatzen badu eta ez bestela.

Egin beharreko gastua aurreko ataletan zehaztutako gastu moten artean agertzen ez bada, Ikerketaren arloko errektoreordetzari hori gauzatzeko baimena eskatu ahal izango zaio.

5.2. Azpiegitura zientifikoa ikertaldearen amaiera baino sei hilabete lehenagora arte erosi daiteke. Denboraldi hori igarotakoan, Ikerketaren arloko errektoreordetzak epigrafe honi esleitutako finantziazioa kenduko du.

5.3. Ikertaldearen zenbatekoak IGBBK erabakiko ditu, 7. oinarrian ezarritako irizpideen arabera egindako ebaluazio oinarritzat hartuta, onartutako moduluak aplikatuz. Finantziazioa UPV/EHUKo ikerketarako aurrekontu erabilgarririk izatearen menpe egongo da.

6. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK

Eskaerak honela aurkeztuko dira:

6.1. UPV/EHUko erregistroetan PAPEREZKO kopia bat aurkeztu beharko dute:

- a. Diru-laguntza eskaeraren eta ikerketa jardueren memoriaren jatorrizko dokumentua, inprimakian normalizatuan aurkeztua.
- b. Ikertzaile nagusiaren institutu edo saileko kontseiluaren aldeko akordioaren jatorrizko dokumentua.
- c. Zineko adierazpena, 3.7 oinarrian adierazitako egoeren batean ez daudela baieztatzeko. Adierazpena ikertaldeko kide guztiek sinatuko dute.

6.2. Ebaluazio prozesua errazteko, CD bat ekarri beharko da, paperezko dokumentazioarekin batera, honako informazio honekin:

- a. Diru-laguntza eskaera eta ikerketa jardueren memoria, inprimaki normalizatuan.
- b. Ikertzaile nagusiaren eta proiektuan parte hartzen duten ikertaldeko kideen curriculum vitae osoa, inprimaki normalizatuan.

Fitxategiak soilik PDF formatuan onartuko dira.

7. OINARRIA. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Deialdiaren helburuarekin bat etorrita, ebaluazio prozesuak jarraian adierazitako irizpideak bete beharko ditu.

Irizpide bakoitzak zehaztuta dauka ebaluazio osoarekiko duen pisua. Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekarpenen kalitate adierazleak aurkeztu beharko ditu (aldizkariak bere ikerketa eremuan duen inpaktua, kokapena, kuartila, etab.).

9.1. Ikertaldearen irizpide eta adierazleak.

1. irizpidea: Ikerketa zientifikoaren kalitatea. Ikerketaren xede guztiak baloratzeko aukera ematen duten ekarpen guztiak hartuko dira kontuan, jakintzaren transferentzia barne. Ekarpen horiek aldizkari zientifikoetan (elektronikoak barne) argitaratutako artikuluak, eta liburu zientifiko-teknikoak edo horietako kapituluak barne hartuko dituzte, baita I+G+Bren kudeaketarako eta teknologiaren transferentziarako ahalmena adierazten dutenak ere, baldin eta sektore produktiboari ekarpen esanguratsua eta neurgarria egiten badiote: emandako patenteak, baimendutako patenteak, etab.

Irizpide honek % 40aren balioa izango du guztizko puntuazioan.

2. irizpidea: Enpresekiko proiektu, sare eta kontratuetan izandako parte-hartzea. Balioetsiko da I+G+Bren arloko sare, kontratu, proiektu eta programetan parte hartzea, direla eskualde mailakoak direla europar edo nazioartekoak, bai eta europar eta nazioarteko mugikortasun programetan ere.

Irizpide honek % 30aren balioa izango du guztizko puntuazioan.

3. irizpidea: Proposatutako ikerketaren helburuen garrantzia. Honako alderdi hauek baloratuko dira, aplikagarri direnean:

- Ikertaldearen helburuak: taldeak proposaturiko helburuen berritasuna eta garrantzia.
- Lor daitezkeen emaitzekin ekarpen garrantzitsuak, patenteak edota jakintza transferentziak egiteko aukera.

- Emaitzen bidez oinarri teknologikoko enpresak (spin off) sortzen laguntzeko aukera.
- Izaera kooperatiboko edota sareko ikerketetan parte hartzea.
- Taldearen helburuek aurkezturiko lan plangintzarekiko eta behar ekonomikoekiko duten bateragarritasuna.
- Proposatutako arloan jakintza hutsune aski garrantzizkoa egotea.

Irizpide honek % 15aren balioa izango du guztizko puntuazioan.

4. irizpidea: ikertaldearen kudeaketa proposamenaren ebaluazioa. Honako alderdi hauek baloratuko dira, aplikagarri direnean:

- Ikertaldearen osaera, egitura, diziplinartekotasuna eta proposatutako helburuekiko barne koherentzia.
- Emaitzen hedapen zientifikoa, taldearen ikerketa jardueraren komunikazio, hedapen edo didaktika ekintzen edo programaren argitan.

Irizpide honek % 15aren balioa izango du guztizko puntuazioan.

8. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 6an bukatuko da.

9. OINARRIA. ESKAERAK NOLA AURKEZTU

11.1. Eskaerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzendu behar zaizkio. 6. oinarrian zehazten diren dokumentuekin batera aurkeztu behar dira UPV/EHUko Erregistro Orokorrean (Bizkaiko campusa), Araba eta Gipuzkoako campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Bateratuari buruzko Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira.

11.2. Inprimaki ereduak webgunean eskura daitezke:

<http://www.ikerkuntza.ehu.eus>

11.3. Ikerketaren arloko errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUK darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Euskarazko dokumentazioa euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu behar dutela ikusiz gero, errektoreordetza eskatzailearekin harremanetan jarriko da eta zer aukera dauden azalduko dio:

- a. Eskatzaileak berak epe luzeago bat izatea dokumentazioa gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu baten esku uztea itzulpena; hala eginez gero, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena baliozkotzeko, ebaluatzera bidali baino lehen.

10. OINARRIA. DIRU-LAGUNTZEN GESTIO ORGANOA

Ikerketaren arloko errektoreordetzak kudeatuko ditu, Ikerketaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren bidez, deialdi honetako diru-laguntzak.

11. OINARRIA. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

11.1. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hamar egunera, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du. Bertan eskaera bakoitzari zer falta zaion zehaztuko da, interesdunek akatsa zuzen dezaten. Hamar egun balioduneko epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko.

11.2.7. oinarrian zehaztutako ebaluazio irizpideen balorazioa kanpo prozesu baten bidez egingo da. Prozesu hori ANEPek egingo du, ebaluatu beharreko 26 arlo tematikoetako bakoitzerako, eskarian agertutako ikertzaile nagusiak adierazita.

11.3. Ebaluazio prozesuan, beharrezkoa izanez gero, IGBBk, kanpoko ebaluatzaileek hala eskatuta, ikertaldeek programatutako jarduerak aldatzeko proposatu ahal izango die eskatzaileei, programaren helburuetara hobeto egokitzeko.

Ebaluazio prozesuan ikertzaile nagusia bertan egon dadila eskatu ahal izango da, eskaerari buruzko azalpenak eta xehetasun gehigarriak eman ditzan.

11.4. Ebaluatzaileen ustez aurrekontu handiegia behar duten eta proposatutako iturrietatik diru-laguntza lortzea zail duten eskaerei laguntza ukatu ahal izango zaie.

12. OINARRIA. EBAZPENA

12.1. UPV/EHUko IGBBk, eskaera bakoitzaren ebaluazio txostena ikusita, laguntzak adjudikatzeko proposamena bidaliko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari. Deialdi hau gehienez sei hileko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe horretan ageriko ebazpenik ematen ez bada, eskaerak gaitzetsizat joko dira.

12.2. Ikerketaren arloko errektoreordearen ebazpen bidez jakinaraziko zaio ikertzaile nagusi bakoitzari eskaera onartu zaion ala ez eta, baiezko kasuan, zenbateko laguntza emango zaion. Eskaera onartu ez bada, azalpenak emango zaizkio ikertzaile nagusiarri.

12.3. Ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen 116 eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, aipatu ebazpenaren kontrako administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

13. OINARRIA. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO BALDINTZAK

Adjudikatutako laguntzetarako, deialdiaren ebazpen nominala jakinarazi ondoren, ikertaldeko ikertzaile nagusiak dokumentua sinatu beharko du ebazpenean zehaztutako finantziazio baldintzak onartzen dituela adierazteko. Ebazpena bidali eta hamar egun natural igarota Ikerketaren Kudeaketarako Zuzendaritzak ez badu finantziazio baldintzak onartzeko dokumentua sinatuta

jaso, proiektua onartutzat emango da, eta adjudikatutako zenbatekoa emango zaio.

14. OINARRIA. JARRAIPENA

14.1. Ikerketaren arloko errektoreordetzak antolatuko du diruz lagundutako eskaerei segimendua egiteko prozedura.

14.2. **Azken txostena.** Jarduerak amaitu eta hurrengo hilabetera, emaitzak amaierako txostenean jasoko dira, horretarako emango den inprimaki batean. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta haren sail edo institutuko zuzendariak onspena eman beharko dio.

14.3. **Azken ebaluazioa.** Azken txostena entregatu ondoren, emaitzen ebaluazioa egingo da. Honako hauek hartuko dira kontuan ebaluaziorako:

- a. Ikerketan lortutako emaitzen bidez egindako ekarpenak.
- b. Jarduera plana gauzatzeko prozesuan zehar lortutako kanpoko finantziazioaren eta UPV/EHUk emandako finantziazioaren arteko ratioa.
- c. Azken bost urteetan taldean prestakuntza jaso duten doktoreak.
- d. Ezar daitezkeen beste irizpide batzuk.

14.4. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, faktura originalak ikertaldeko ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira, eta eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Barne Auditoretzako Zerbitzuak, Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunak betez laguntzen deialdian egin behar izan dezaketen edozein egiaztapenentarako.

Edozelan ere, ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko dokumentuak galdu direla eta.

14.5. Ikertaldeari 4. oinarrian ezarritako finantziazioaren indarraldian egindako gastuak besterik ezin dakioke egotzi; hau da, epe horren barruan egiazki egindako erosketak, bidaiak, lanak, etab.

15. OINARRIA. EMAITZEN KOMUNIKAZIOA ETA USTIAPENA

15.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), bai eta sortutako jakintza hedatzeko eta ustiatzeko ekintza orotan ere (parte hartzen deneko txosten, hitzaldi, biltzar eta ekitaldi zientifiko guztiak), ikertzaileek UPV/EHUko kide direla adierazi beharko dute, bai eta honen nortasun irudia jarri ere, unibertsitateak ezarritako baldintzetan.

15.2. Ikertzaileek zein erakundeko kide diren adierazteaz gain, eskerrak emateko atalean ikerketa ahalbidetu duen finantziazioa eman duten erakundeen izena ere jarri beharko da.

15.3. Ikertaldearen jardueran jabetza intelektualeko edo industrialeko tituluren baten bidez babestu beharreko emaitzak lortzen badira, UPV/EHUko Jabetza Intelektualaren eta Industrialaren Araubidean ezarritakoa aplikatuko da.

16. OINARRIA. DIRU-LAGUNTZAREN BALDINTZEN ALDAKETA

16.1. Ikertaldeari diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira edo ikertaldeak diru-laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek laguntzak adjudikatzeko ebazpena aldatzea eta kitapena egitea ekar lezake.

16.2. Kasu horretan, ebazpena abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. artikuluan (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa) zehaztutako administrazio prozedurari jarraituz burutuko da, IGBBk proposatuta edo txostena eginda. Ondoren, taldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio, banaka.

16.3. Besteak beste, honako kasu hauetan ulertuko da diru-laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Jarduerari uko egitea eta diziplina anitzeko taldearen lankidetzaren harremanak bertan behera uztea edo haustea; edo ikertzaile nagusia UPV/EHU ez beste erakunde batera aldatzea; edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joatea; eta horren guztiaren ondorioz, arriskuan jartzea taldearen zuzendaritza eta aurreikusitako helburuen eragina.
- b. Ikerketaren arloko errektoreordetzaren baimenik izan gabe ikertaldeak proposaturiko helburuekin eta hitzartutako epeekin bateragarria ez den jarduera bat egitea.
- c. Deialdi honetako oinarriak osorik edo partzialki ez betetzea.
- d. Eskeraren datuak ezkutatzea, aldatzea edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Jarduera finantzatzeko deialdietan sartzen ez diren gastuak egitea edo UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak bete gabe gauzatzea.

17. OINARRIA. TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

17.1. Taldearen osaeran edozein aldaketa egiteko baimena eskatu beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, hark onar edo bazter dezan.

Ikertaldea lanean hasi eta 18 hilabete igaro arte ez da onartuko inork ikertaldea uztea, ezinbestean ez bada.

17.2. Ikertaldeetako kideen aldaketak, altak eta bajak Ikerketaren arloko errektoreordeak baimena ematen duenetik hasiko dira eragina izaten.

17.3. Ikertaldea osatzen duten ikertzaileen kopurua txikitzeak finantziarioa eguneratzea eta/edo taldea desegitea ekar dezake.

18. OINARRIA. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztian diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorrean ezarritakoari lotuko zaio; besteak beste, diru laguntzak itzultzeari eta arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko xedapenei.

Horretarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean beste administrazio batzuetako organo zehatzei buruz egindako aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitate organorako direla, edo, gertuen dagoen organorako.

19. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIPIOAK

19.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko arautegia betetzea: ikerkuntza biomedikoaren 14/2007 legea, biobankuei buruzko 1716/2009 ED, pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 legea, datuen babesari buruzko 15/1999 legea eta UPV/EHUren datu pertsonalak babesteko 2008ko arautegia.
- CEID/CEISH-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

19.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekiko Esperimentaziorako Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

19.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuhurtasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; langileen agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; langileen agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED.
- Agente biologikoekiko eta/edo genetikoki eraldatutako organismoen Ikerketako Batzorde Etikoaren (ABIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

19.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin

edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioetatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarrizko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.).

19.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek amaiera ematen dio administrazio bideari, baina interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, deialdia argitaratu ondorengo bi hilabeteko epean. Horrez gain, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango dute, hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi hau, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu eta gero, Ikerketa arloko Errektoreordetzako web orrian argitaratzen den egunean indarrean jarriko da.

Leioa, 2016ko apirilaren 21ean

Fernando Plazaola Muguruza
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrector de Investigación